



Ayuntamiento de Garraida
Garraida Udala
P3111400B
Arostegi plaza, 1 - 31693 Garraida
ayuntamiento@garraida.es
udala@garraida.es

Garraida Udaltzeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hogeita bosteko urtarilaren hogeita zortzian, arratsaldeko hirurak eta hogeita hamarrean, Udalbatzak premiazko bilkura berezia egin du, lehenengo deialdian, indarrean dagoen arautegiak eskatutako gutxieneko partaideak elkartu direla. Bilkura alkate andereak zuzendu du, jarraian adierazitako zinegotziak bertaratu dira eta idazkariaren aholkularitza izan dute.

Bildutakoak:

Jarduneko alkatea: Angel Luis Mandacen Larrañeta

Zinegotzi jaunak: M. Andueza, M.J. Barberena, I. Iriarte.

Idazkaria: Amalur Otero Goñi

LEHENA. BILKUREN PREMIA BERRESTEA

Udalbatzako idazkariak, bilkura irekitzat eman ondoren, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 7.1 artikulua irakurri du. Artikulu horrek honako hau ezartzen du:

"1. Osoko bilkuretarako deialdia lehendakariak egingo du, gutxienez, bilkura egiteko aurreikusitako eguna baino bi egun baliadun lehenago. Bilkura bereziko deialdia presazkoa bada, ordea, Osoko Bilkurak berretsi beharko du, gehiengo soilez."

Horrenbestez, bozketa egin da, eta bertaratutakoek aho batez berretsi dute bilkura premiazkoa dela.

BIGARRENA.- ALKATEA HAUTATZEA

Udal honek, 2025eko urtarrilaren 17an egindako osoko bilkura berezian, erabaki zuen udalbatza Begoña Munárriz Guezalak Garraaldako Udaleko alkate eta zinegotzi karguei egindako ukoren jakinaren gainean gelditzen zela.

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikulua alkatea hautatzeko jarraitu beharreko prozedura ezartzen du, jarraian transkribatzen den moduan: "100 eta 250 biztanle arteko udalerrietan, zinegotzi guztiak izan daitezke alkategai; hautagairen batek zinegotzien botoen gehiengo osoa lortzen badu, hautetsia izango da; inork ez badu gehiengo hori lortzen, zinegotzien hauteskundeetan herritarren boto gehien lortu dituen zinegotzia izendatuko da alkate".

Aipatutako artikuluan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkura honek alkate berriaren bozketa egin behar du. Horrenbestez, jarduneko alkate Angel Luis Mandacén Larrañeta jaunak galdetu du zinegotzietatik nortzuk aurkezten diren alkatetzarako hautagai, eta Ion Iriarte Pedroarena jaunak bera aurkezten dela erantzun du.

Jarraian, alkateak bozketa egin du, isilpeko boto-paperaren bidez. Ondoren, boto-zenbaketa egin da, eta honakoa izan da emaitza:

- Ion Iriarte Pedroarena jauna: 3 boto.
- Boto zuriak: boto 1.

Hortaz, zinegotzien kopurua lau izanik eta botoen gehiengo osoa hiru izanik, HAOLoren 196. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Ion Iriarte Pedroarena jauna hautatu da, eta jarduneko alkateak alkate izendatu du.

Alkate kargua berariaz onartutakoan, Ion Iriarte Pedroarena jaunak, legeak aginduta, zin/promesa egin du karguaren betebeharrak leialtasunez beteko dituela, Erregeari leial izanik, eta Konstituzioa Estatuaren funtsezko arau gisa zainaraziko duela. Horren ondoren, karguaz jabetu eta aurrerantzean Osoko Bilkurako presidentea izanen da.

HIRUGARRENA.- ZENBAIT GAI

3.1. Zinegotzi kargua ordeztea

Hautagai titularren eta ordezkoen zerrenda agortzen den kasuetan, erakunde politikoek proposatuta zinegotziak izendatzeko Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoaren 182. artikulua aurreikuspena araubide arrunteko eginkizunak dituzten udalerriei dagokie, hautagaitza itxi eta blokeatueta oinarrituta; baina ez da aplikagarria 250 biztanleko udalerrietan; izan ere, kasu horretan, HAOLok zinegotzien postu hutsak betetzeko berariazko prozedura ezarria du 184 f) artikuluan, adierazten baitu kasu horietan boto gehien lortu dituen hurrengo hautagaiari esleituko zaiola postu hutsa (1986ko urtarrilaren 27ko, 1989ko uztailaren 19ko, 1998ko urriaren 8ko, 2005eko azaroaren 10eko, 2010eko apirilaren 8ko, 2018ko maiatzaren 23ko, 2020ko abenduaren 17ko eta 2023ko abenduaren 21eko erabakiak, besteak beste).

Zentzu honetan, LOREG-eko 184 f) artikuluan ezarritako prozeduraren bidez sortutako hutsunea kasu honetan bete behar ez denez, eta aipatutako Lege Organikoaren 182. artikuluko 3. ataleko aurreikuspenak betetzen ez direnez, Udaleko zinegotziak Udalbatzako kideen legeko kopuruaren erdia baino gutxiago izatera iristen ez direnez, Udalak egun dituen kide kopuruarekin lanean jarraitu behar du, ez baita Kudeaketa Batzorderik eratu behar.

3.2. Arloen banaketa

Erabaki da honako batzorde informatibo iraunkor hauek eratzea, adierazitako udalkideen partaidetzarekin:

- Abeltzaintza, herri lur eta mendi batzordea: Ion Iriarte eta Martín Andueza jaunak.
- Ur, lan eta karrika batzordea: Miguel José Barberena eta Angel Luis Mandacen jaunak.
- Garraialdako Eskola: Martín Andueza jauna.

Aldi berean, Osoko Bilkurak erabaki du jarraian adierazitako zinegotziak udalaren ordezkariak izanen direla udalaren eskumena diren kide anitzeko honako erakunde hauetan:

- Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: Martín Andueza jauna.
- Bidausi Hondakin Solidoen Mankomunitatea: Angel Luis Mandacen jauna.
- Pirinioetako Mahaia: Miguel José Barberena jauna
- Osasun Kontseilua: Martín Andueza jauna
- Cederna-Garalur Elkartea: Miguel José Barberena jauna.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa: Angel Luis Mandacen jauna
- ANIMSA: Angel Luis Mandacen jauna
- PACES: Alkate jauna
- Eskola Kontseilua: Martín Andueza jauna
- Eskualdeko Hiltegia: Miguel José Barberena jauna
- Irati-Aritza proiektua: Alkate jauna

Eta aztertzeko gai gehiagorik agertu ez denez, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko arratsaldeko lauak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.